



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko uztailaren 3a

98. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoa. Osoko Bilkurak onetsia (2. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen 2017ko ekitaldirako ordainsariak (5. or.).
- Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 2017ko ekitaldirako ordainsariak (5. or.).
- Nafarroako Parlamentuko langileen 2017ko ekitaldirako ordainsariak (6. or.).
- Foru parlamentarien 2017ko ekitaldirako ordainsariak (6. or.).
- Nafarroako Parlamentuak izendatu beharreko Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko kideak hautatzea (7. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoa.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2017ko ekainaren 29an egindako Osoko Bilkuran, honako foru lege hau onetsi zuen: “Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoa”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 146. artikuluan ezarritakoa betez, argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2017ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Legea, zeinaren bidez aldatzen baita azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoa

ATARIKOA

Foru lege honek hedatu egiten du azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legearen aplikazio-esparrua, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoarena, hartan jasotako kasuei gehituz “haurtxo-lapurketa” deritzon jokabidearen biktimena.

Aipatu beharra dago izan zela genero-errepresio mota bat, emakume izateko eredu bakar baten eta ama izateko modu bakar baten inposizioan oinarritua: hots, frankismo moralista hark inposatu ohi zuen familia tradizionalako ereduaren sartzen zena. Giro horretan, masiboki egin ziren “haurtxo-

lapurketak”, laguntzaile izan zituztela erlijio-, osasungintza-, politika- eta epailetza-arloetako pertsonak. Horrela, milaka haurtxo lapurto zitzaizkien Espainia osoan haien gurasoei, engainu, ezkutitze eta bazterkeria bitartezko adopzio faltsuan entregatuak izateko. Bereziki kaltetuta gertatu ziren politikoki nabarmendutako emakumeak, familia ugariak, gabezia kultural eta ekonomikoak zituztenak eta, gehienetan, gizarte-posizio apalekoak.

Horrenbestez, foru lege hau kokatu behar da gertatua argitu eta biktima horiei ordaina emateko Nafarroan abian den prozesuan.

Artikulu bakarra. Azaroaren 26ko 33/2013 Foru Legea, 1936ko kolpe militarren ondorioz eraildako eta errepresioaren biktima izandako Nafarroako herritarrei errekonozimendua eta ordain morala ematekoa, aldatzen da, ondorengo idatz-zatietan aipatzen diren arauetan.

Bat. 1. artikuluko 1. apartatua aldatzen da. Honela geldituko da:

“1. Foru lege honen xedea da 1936ko uztailaren 18an izan zen kolpe militarren ondorioz Nafarroan erail zituzten edo errepresio frankistaren biktima izan ziren pertsonen memoria historikoa berreskuratzea, eraildako pertsonen memoria lehenatuz, aitortuz eta bere onera ekarriz, bai eta haurtxo-lapurketaren jokabidearen biktimena ere”.

Bi. 3. artikuluari paragrafo berri bat gehitzen zaio. Hona:

“Haurtxo-lapurretaren biktimek eskubide berak izanen dituzte baldin eta argitze- eta bilaketa-prozesuan beharrezko gertatzen bada lurperalekuren bat irekitzea”.

Hiru. 4. artikuluko 1. apartatuari letra berri bat gehitzen zaio:

“h) Diktadura frankistaren errepresioaren ondoriozko haurtxo-lapurretaren biktimei laguntzea; bai

senitartekoei, bai beren identitate biologikoa bilatzen duten pertsoneri”

Lau. 5. artikuluko 2. apartatuak testu hau izanen du:

“2. Batzordearen osaera erregelamendu bidez zehaztuko da. Nolanahi ere, honako hauen ordezkariak edukiko ditu beti: Nafarroako Parlamentua, Nafarroako administrazio publikoak, memoria historikoaren arloko elkarteak eta historiaren, auzitegiko medikuntzaren eta arkeologiaren arloekin lotutako entitate akademiko eta profesionalak”

Bost. 8. artikuluko testu hau izanen du:

“ADN banku bat sortuko da, Nafarroako Auzitegiko Medikuntzaren Institutuaren menpe egonen dena, non gure Erkidegoan hobitik ateratako gorpuzkien hezurren laginak kontserbatuko diren, zein bere ADN sekuentziarekin. Era berean, familian biktimaren bat izandako edonork, horren barne direla haurtxo-lapurretaren biktima izan direnak, bere ADN sekuentziatzeko laginak har diezazkieten eskatzen ahalko du, erakunde horretan biltzen diren datuekin alderatzeko. Hori guztia, baldin eta datu-babesari buruzko maila altuagoko legerik urratzen ez bada.

Proba horiek eskaera egin eta hiru hilabeteko epean aztertu beharko dira, laginen hondatzea ekidinez eta, halatan, prozesu guztia azkartuz; batez ere, adinean aurreratuta dauden pertsonen kasuan”

Sei. 13. artikuluko 2. apartatuaren bukaeran testu berri bat eranstean da. Hona:

“Kasua bada, behar diren iturriei historia medikoak eskatzen ahalko zaizkie, Nafarroan 1936ko uztailaren 18tik 1978ra bitartean edozein zentrotan, estatukoa nahiz pribatua, izan ziren jaiotzei buruzkoak, jaiotza horiek baldin baziren Nafarroan gerra zibilean zehar nahiz frankismo-aldian egon ziren atxiloteta-zentroetako edozeinetan espetxeratutako emakumeengandikoak; halaber eskatzen ahalko dira adopzio-liburuak eta adingabeen babesari buruzko espedienteak”

Zazpi. 13. artikuluko 4. apartatuaren bukaeran bi paragrafo berri eranstean dira. Hona:

“Halaber, haurtxo lapurtuen errolda bat eginen da. Errolda hori ez da publikoa izanen, jasotzen dituen datu pertsonalak babestearren; baina interesdunei eman eginen die dagokien dokumentazioaren kopia, eta zilegi izanen da kasuko eskaera egiten duten ikertzaile kreditatuei ematea erroldaregiteari buruzko informazio guztiak, baldin eta haiek konprometitu badira datu pertsonalik ez eza-gutaraztera. Bestela, kasuko lege-erantzukizuna izanen dute.

Nafarroako Gobernuak erroldatik heldu diren datu estatistikoak baizik ez du argitara emanen. Hori guztia, baldin eta datu-babesari buruzko maila altuagoko legerik urratzen ez bada”

Lehenbiziko xedapen gehigarria. Ekitaldi instituzionala.

Nafarroako Gobernuak ekitaldi instituzional bat eginen du arazo honek ukitutako pertsonen eskakizunen alde.

Bigarren xedapen gehigarria. Espainiako Estatuari eskaera egitea.

Nafarroako Gobernuak Espainiako Estuari eskatuko dio behar diren lege-aldaketak egin ditzan gertakari hauek argitzeko eta ukitutako pertsonen eskakizunei erantzuna emateko. Arreta berezia eskainiko zaie jokabide hauen ikerketarekin zerikusia duten eskaerei, artxiboetarako sarbideari, fiskaltza espezializatu bat sortzeari, Estatu-ko ADN banku bat sortzeari eta Zigor Kodearen aldaketari, delitu horiek preskribaezinak izan daitezten, gizateriaren aurkako delituak baitira.

Hirugarren xedapen gehigarria. Doako laguntza juridikoa.

Aitortu egiten da haurtxo-lapurretaren biktima izan diren pertsonak daukaten eskubidea gertatua argitzeko; baita judizialki argitzeko ere. Horretarako, martxoaren 21eko 17/2012 Foru Dekretua aldaturiko da, zeinaren bidez onesten baita Nafarroako Foru Komunitatean aplikatzekoa den Doako Laguntza Juridikoari buruzko Erregelamendua, doako justiziarako eskubidearen onuradun izan daitezten arrazoi honengatik errekurtsioak aurkeztu dituzten pertsonak.

Laugarren xedapen gehigarria. Biktimen onurak.

1979tik 1990era bitarte gertaturiko haurtxo-lapurretaren biktimak foru lege honen onurei atxiki ahalko zaizkie, baldin eta frogatzen bada arau honetan ezarritako kasuen arabera izan dela lapurreta.

Azken xedapenetan lehena. Erregelamendu bidezko garapena.

Nafarroako Gobernuari ahalmena ematen zaio foru lege hau aplikatu eta garatzeko behar adina erregelamenduzko xedapen eman ditzan.

Azken xedapenetan bigarrena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen 2017ko ekitaldirako ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 29an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak txosten-proposamena aurkeztu du, 2017ko ekainaren 28an, Nafarroako Parlamentuko behin-behineko langileen 2017ko ordainsariei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 37. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Langileen Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Honako behin-behineko langileen ordainsari gordinak onestea, 2017. urterako:

– Lehendakaritzako Kabineteko burua: 51.651,04 euro.

– Lehendakaritzako idazkaria: 35.032,76 euro.

– Mahaiko kideen idazkaria: 28.171,22 euro.

– Parlamentu-taldeek laguntzaileak: 28.171,22 euro.

2. Talde parlamentarioen laguntzaileei eta Mahaiko kideen idazkariari aplikatzea 2012ko abenduaren 17ko Mahaiaren Erabakiaren bidez zerbitzu-aitorpenari buruz onetsitako irizpideak.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 2017ko ekitaldirako ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 29an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak txosten-proposamena aurkeztu du, 2017ko ekainaren 28an, Parlamentuko lehendakariaren 2017ko ordainsariei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 37. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko

Lehendakariaren Estatutuan ezarritakoari jarraikiz, ERABAKI DA:

1. Lehendakariaren 2017. urteko ordainsari gordinak 57.253,14 eurokoa izanen dela onestea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Parlamentuko langileen 2017ko ekitaldirako ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 29an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak txosten bat eman du, 2017ko ekainaren 28koa, Nafarroako Parlamentuko langileen 2017ko ordainsariei buruz.

Dokumentazioa aztertu ondoren eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 37. artikulua ezarritakoarekin bat, hona ERABAKIA:

1. Ezartzea ezen Nafarroako Parlamentuko langileen ordainsariak ehuneko 1 gehituko direla, 2017ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin.

Maila bakoitzaren hasierako soldatak urteko zenbateko hau izanen du 2017an:

Maila	Urteko zenbatekoa
A	25.789,96 euro
B	21.696,22 euro
C	17.997,84 euro
D	15.674,82 euro

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru parlamentarien 2017ko ekitaldirako ordainsariak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko ekainaren 29an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak txosten-proposamena aurkeztu du, 2017ko ekainaren 28koa, foru parlamentarien 2017ko ordainsariei buruz.

Foru parlamentarien ordainsariei buruzko arauetan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 15., 17. eta 37. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, hona ERABAKIA:

1. Onestea 56.718,62 eurokoa izanen dela lanaldi osoko araubideari atxikitako Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kide diren foru parlamentarien 2017. urterako ordainsari gordina.

2. Onestea 50.415,40 eurokoa izanen dela lanaldi osoko araubideari atxikitako gainerako foru parlamentarien 2017. urterako ordainsari gordina.

3. Onestea 42.538,86 eurokoa izanen dela lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko Mahaiko eta Eledunen Batzarreko kide diren foru parlamentarien 2017. urterako ordainsari gordina.

4. Onestea 37.811,48 eurokoa izanen dela lanaldi osoko araubideari atxiki gabeko gainerako foru parlamentarien 2017. urterako ordainsari gordina.

5. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko ekainaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Parlamentuak izendatu beharreko Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko kideak hautatzea.

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2017ko ekainaren 29an egindako bileran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“1. Nafarroako Parlamentuak izendatu beharreko Nafarroako Kutxa Fundazioaren Patronatuko kide gisa pertsona hauek hautatzea:

- Cristina Bayona Sáez andrea
- Javier Miranda Erro jauna
- Iosu Ardaiz Loyola jauna

2. Nafarroako Gobernuari erabaki honen berri ematea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea”.

Iruñean, 2017ko ekainaren 30ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza
